



Esp. kodea: 2018SMOZ0008
Titularra: EAJ-PNV

Gaia: AURKEZTEA HERRIKO ONDAREAREN ALDE
ETA KATALUINAREN EGOERAREN INGURUKO
MOZIOA.

Hasiera data: 2018/04/12

MOZIOA, ONDASUNA

GURE HERRIKO ONDAREAREN ALDEKO MOZIOA

Herri baten ondarea, herri baten balioa da; guztiona, herritarrena.

Hala ere, gure herria eta ondarea zaindu beharrea, batzuk, ia astebukaerero pintaketak egiten dituzte gure ondare historikoan.

Bakoitzak gure egiten ditugun aldarrikapenak egiteko hainbat aukera dauzkagu: talde politiko desberdinek antolatzen dituzten ekitaldietan, adierazpen libreko guneetan, eta gaur egun hain eskura dauzkagun aldizkari eta sare sozialak erabiliz. Aukera hauek nahikoa ez eta zenbaitek herria pintaketek betetzea nahiago izan dute.

Arbolapetako arkuak orain gutxi berriak da eta dagoeneko jasan ditu pintaketak behin baino gehiagotan. Gure ondare historikoaren parte garrantzitsu bat da, XIII. mendean eraiki zen bezala kontserbatzen da eta herriguneko aterik zaharrena da.

Horrez gain Kultur Atek, kasko historikoak edo San Juan bataiatzailearen elizak ere jasan izan dituzte eraso hauek. Denok dakigu pintaketak garbitzeko erabiltzen diren produktu kimikoek izugarri izorratzen dutela harria eta ondarea biziki kaltetzen dela.

Horregatik Mozio honen bitartez dei egiten ditugu herritarrek gure herria errespetuz tratatzera eta gure ondare historikoa zaintzera.

1 – Arrasateko Udalak, Herritarren eta alderdi politiko guztien elkarlana eskatzen du guztion artean Arrasateren ondarea zaintzeko ahaleginak egin ditzagun.

2-Pintaketek herriko ondarea kaltetzen dute. Herriko elkarte eta eragileek lan eta esfortzu handia egiten dute gure herriko erakargarritasun eta balio horiek ezagutzera emateko eta indartzeko, eta asteburuz-asteburu egiten diren pintadek esfortzu guzti hori zapuzten dute. Hortaz, Gure ondare historikoan egiten diren pintaketen aurkako adierazpen irmoa adierazten dugu: Udaletxea,

Honen harira esan beharra dago zoritxarrez Urtarriletik Apirilera bitartean, 4 hilabeteetan 8 alditan gutxienez bete dute herria pintaketekin eta 2018an eragindako gastua orain arte 17.000 EUR takoa izan dela. Kontutan izaten badugu legealdi hasieratik egindako gastua, 90.000 EUR izan dira guztira.